

## Arzak-ek ehun urte bete ditu

**Intxaurrendoko sei danborrada eta 300 danborrari jatetxe aurrean arituko dira datorren larunbatean**

**Alberto Irazu**

**a**urten mendea beteko da Arzak jatetxea zabaldu zenetik. Hargatik, Juan Mari Arzak buru dela, omenaldi beroa egingo zaio jatetxeari Gastronomia Astean. Ekainaren 7an, auzoko sei elkartetako danborradek -Arzak-Ortzeok, Zulo-zar, Mons, Haizalde, Irurak eta Boskozaleak- jatetxe aurrean arituko dira 16.00etan, 300dik gora danborrari osora.

Igandean afari-omenaldiaren txanda izango da. Bertan, Arzak jatetxeari ezezik, Paul Bocuse Frantziako sukaldariari, Martin Berasategiri, Ategorrietako Sukaldaritzza Goi Eskolari, Luis Irizar Sukaldari Eskolari, eta Pedro Subijana-ren telebista programari Urrezko Sukaldaria saria emango zaie.

### **Euskal sukaldaritzza berria**

Omenaldian Paul Bocuse frantziarra izango da, urte askotan munduko sukaldari

ri onenatzat jo izan dena. Arzak sukaldari frantziarraren lagun handia da. Izan ere, 1977an donostiarra haren jatetxera joan zen sukaldaritzza praktikak egitera. Bocuserekin izandako mahainguru baten ondoren sortu zen euskal sukaldaritzza berria. Mugimenduak, kontzeptu eta ideia berritzaileak plazaratzearekin batera, betiko euskal sukaldaritzaren defentsa egin zuen.

### **Hamaika sari**

Lau lerrotan laburtu ezineko kurri-

kulum luzea du Juan Marik, eta kontu ezin ahala sari eta aipamen jaso ditu. Berak bezalaxe, garai batean ostatu izandako «Arzakenea» etxeak ere historia luzea du teilatupean. Garai batean igandero «bilerak» egiten ziren bertan, eta jendeak etxe aurreko bide erdian dantzatzen zituen fandagoak eta arin-arinak. Francisca Arratibel, Juan Mariren ama, zen orduan etxeko nagusi. Egun, Elena Arzak dugu etxe honetako emakumezkoen kate-begi berria.



**Juan Marik gidatu den euskal sukaldaritzza berriak aldaketak eta tradizioa uzta du zituen**

## Intxaurrondoko esperientzia, irakaskuntzan sukaldaritza sartzen hasteko ekimen baliagarria izan daiteke

ikastetxeetan ikasgaia izan beharko lukeela defendatzen dute. Zentzu honetan Intxaurrondoko astearen barruan martxan jarritako esperientzia hau lehen urratsa besterik ez da. Honela, Juan Mari Arzak eta Pello Garcia Amiano -astearen antolatzailea-, sukaldaritzaz testu-liburuak prestatzen hastekoak dira aurki.

Horiek denak idatzi orduko, Ikastolen Federazioarekin elkarlanean hasteko aukera egon daiteke. Helburua, beti ere, umeei sukaldetan moldatzen erakustea da: «Sukaldaritza irakaskuntzan sartu behar da. Gaurko umeei denetarik ikasten dute, historia, erlijioa... baina gero gauza askok ez diete ezertarako balio. Sukaldean jakitea, aldiz, erabat

*baliagarria da beti, bai eguneroko bizitzan moldatzeko, eta baita, norbaitek hala nahi izanez gero, sukaldaritza lanbide bezala hartzeko ere».*

Intxaurrondoko ikastetxeetan, Juan Mari Arzak maisu dutela, hasiak dira dagoeneko bidea jorratzen.

Sukaldariak euskaldunak direnean «Umeentzat Janariak Gertatzen» saioak elebitan izaten dira. Hori da gainera antolatzaileen helburua. Joan den urtean pastak, entsaladak, bizkotxo eta galletak bezalako jakiak egiten erakutsi zitzaizkien haurrei. Aurten ere ildo berria izango da. Jaz umeei egindako galdera zorrotzak ikusita, aurten ere bizkor ibili beharko dute sukaldariak. Ekainaren 7ko 11.00etan, bestalde, ogitarteko lehiaketa izango da.

KAFEA, ... KAFEA

gao kafea  
... gao baietz!

AMARA KALEA 18 • BEHEA • TFNOA.: 943-466418 • DONOSTIA

GETARIAKO TXAKOLINA  
DENOMINACION DE ORIGEN

CONSEJO REGULADOR  
AÑO 1989

Aldamar parkea 3, behea  
Tfnoa. eta faxa: 14 03 83  
GETARIA